

ASTEKARIA: 23. atala

DATA: 2024/11/29

## GUREAN

### IKASTURTE HONETAKO IRUDIA

Aste honetan, ikastolako irudi berria argitaratu dugu. Urtero bezala, gure ikasleak izan dira protagonistak eta iragarki hau erabiliko dugu aurten hedabide guztietan. Bestalde, abenduaren 14an ate irekiak egingo ditugu gure proiektua zabaltzeko asmoz: instalazioak, gelak, txoko garrantzitsuenak eta gure filosofia mahai gainean jartzea da helburua. Gero eta familia handiagoa izateko, denok batera egin behar dugu. Prest al zaudete?



## GURE INGURUAN

### EUSKARAREN EGUNA

NON: HERRERA

**HERRERA EUSKARAREN EGUNA 2024**

**AZAROAK 29 - OSTIRALA**  
19.00 Euskararen aldeko BOLO TXAPELKETA HERRIKOIA

**AZAROAK 30 - LARUNBATA**  
09.00 PALA PARTIDUAK frontoian  
12.00 Haur eta helduentzako EGURREZKO JOKOAK plazan  
12.30 HERRERA KANTUZ auzoan zehar.

14.00 BAZKARI HERRIKOIA (Herrera K.E.)  
Tiketak NIDO TABERNAN salgai  
Haurrak 8€ / Helduak 20€  
Salgai: 2024/11/27 edo agortu arte

15.30 HAURENTZAKO JOKOAK frontoian  
PUZGARRIAK  
HAUR ETA GAZTEENTZAKO TAILER eta JOKOAK  
18.45 ERROMERIA GIDATUA frontoian

19.30 **JOKU** ERROMERIA eta **Umourdin** frontoian

### GABONETAKO ARGIAK. DRONE FESTIBALA

NON: DONOSTIA

Gaur, arratsaldeko 18:30ean piztuko dira Gabonetako argiak. Aurtengo berrikuntza dronen festibala izango da.

Flock Drone Art-ek antolatutako "Drone Show Festival" jaialdiak 3 emanaldi izango ditu, lehenengoa ostiraleko inaugurazioaren parte izango da eta beste biak larunbat arratsaldean. Festibalan Italiako eta Hungariako enpresek parte hartzen dute. Gabonak izango dira gai nagusiak eta Donostiako zerua argizatuko du, 300 dronekin.

Kontxako badian: lehenengo emanaldiak hilaren 29an, gaur, izango da, 18:30ean hasiko den inaugurazio ekitaldiaren barruan. Beste bi emanaldiak hilaren 30ean, larunbatean, 18:30ean eta 19:45ean izango dira.